

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

1.111 pertsonak parte hartu zuten 2012an ikastaroetan sartzeko probetan profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko

la erdiak gainditu zuen (550) eta eskaera handieneko ikasgaiak matematika eta gaztelania izan ziren, 561 eta 431 parte-hartzaileekin, hurrenez hurren

Jueves, 27 de junio de 2013

Guztira 1.111 pertsonak parte hartu zuten 2012an Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatutako [funtsezko gaitasun](#)eko ebaluazio-proben 56 deialdietan, eta deialdi horiek profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntzako ikastaroetan sartzeko uzten dute. Haietatik, ia erdiak (550) 'gai' kalifikazioa lortu zuen. 2. mailako matematika eta gaztelania gaitasunak izan ziren eskaera handienekoak, 561 eta 431 parte-hartzaileekin, hurrenez hurren.

2013an zehar 21 ebaluazio-proba deitu dira, bertan 683 pertsonak parte hartu dute, eta haietatik 338k gainditu zuten. 2012an bezala, parte-hartzaile gehien izandako ikasgaiak matematika (366) eta gaztelania (273) izan ziren.

Proba horien kopuru handiena Nafarroako Enplegu Zerbitzuari atxikitako Iturrondo zentroan egin zen, nahiz eta enplegu-agentzietan ere egiten diren, Nafarroako zonaldetan dagoen eskaeraren arabera. Iturrondo zentroak ere prestakuntza ematen du presentzialak, erdi presentzialak eta on-line bidezko ikastaroekin; bertan, gainera, esperientziaren bidezko egiaztapenaren kudeaketa garatzen da, bai eta ekintzailtza-ekimenetarako laguntza ere prestakuntza nahiz aholkularitzaren bitartez.

Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza-ekintza horiek gaitasun eta kualifikazio profesionalak etengabe bereganatu, hobetu eta eguneratzeko dira, biztanleria aktiboaren irakaskuntza erraztuz, eta pertsona, enpresa, lurralde nahiz sektore produktiboen beharrak batuz.

2013ko urte honetan lankidetzaren hitzarmena sinatu da Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin, helduen hezkuntza-zentroen bidez funtsezko gaitasuneko probetarako prestakuntza trebakuntza hori erraztu dadin. Akordio horri esker, 2013an zehar zentro horiek gaitasun horietako prestakuntzako [25 ekintza](#) programatuko dituzte Iruñean, Tuteran, Altsasun, Lizarran, Tafallan eta Agoitzen. Leku horietan guztietan 500 pertsonak parte hartzea aurreikusten da, irailean hasita. [Izen-ematea](#) zabalik dago jadanik, eta enplegu-agentzietan nahiz Nafarroako Gobernuaren enpleguaren webgunean egin daiteke. [Ebaluazio-proben egutegi](#) bat ere badago, eta han izena emateko enplegu-agentzietara edo Iturrondo eta Cenifer Prestakuntza Zentroetara jo behar da.

Profesionaltasun-ziurtagiriak

Profesionaltasun-ziurtagiriak lan-arloko prestakuntza egiaztagarriak dira eta, haiei esker, hezkuntza-sistemako prestakuntza profesionaleko tituluekin bat etortzen dira. Gaitasun-unitateetan antolatzen dira (gaitasun edo funtzio profesionalen taldeak) eta prestakuntza-ekintzak eginez lor daitezke edota lan-esperientzia aitortuz.

Ziurtagiri horiek 1. mailakoak izan daitezke, oinarrizko gaitasunak jorratzen direnean; 2. maila, teknikoagoak direnean eta 3. maila, gaitasun tekniko horiek goragoko maila batekoak direnean.

1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien prestakuntzan sartzeko ez da beharrezkoa inolako titulaziorik izatea. 2. eta 3. mailakoak egiteko, titulazio jakin batzuk izan behar dira. Titulazio horiek izan ezean, ziurtagiriko ikastaroak egin ahalko dira funtsezko gaitasunak dituztela frogatzen badute edo matematikan edo gaztelanian gutxienezko ezagutza batzuk dituztela. Zenbait ziurtagiritan ere atzerriko hizkuntzako ezagutzak eskatzen dira. Funtsezko gaitasun bat erakusteari esker, ikastaro horiek egin daitezke bertako edukiak ulertuz eta ondoren haietan ikasten dena aplikatuz.